

17/10/2009

Igartubeiti Baserri Museoa "Sagardo Asteak 1.700 bisitari jaso ditu"

Asteazkenean amaitu zen aurtengo Sagardo Astea Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoa eta ekintzen balorazio bat egin ondoren, bisitari ugari etorri eta oso positiboa izan dela esan dezakegu.

Aste osoan hurbildutako pertsonen kopurua zenbatu eta guztira 1.705 bisitari izan ditugu Igartubeitin, iaz baino 329 gehiago. Oso oso pozik gaude, kontutan izanda gainera, bi egunetan egin duen eguraldi kaxkarra, diote arduradunek.

Bestalde, aurten sagar prentsaketa gutxiago eskaini dituzte, aurrekontu murrizketa zela eta, arratsaldekoa kendu zutelarik. Astean zehar bi arratsaldeetan egin ditugu prentsaketak, urriaren 7an eta 13an, hiru taldeek euskaltegi, jubilatue eta eskola umeek, hala eskatu zutelako. Iaz berriz, astean zehar egunero bi prentsaketa egin genituen, diote Igartubeitikoek.

Hala ere, eta zenbakien arabera, jende ugari hurbildu da egun hauetan baserrira. Bisitari gehien jaso zituen eguna astelehena izan zen, bai lehen orduko sagar prentsaketan, 11.00etan, eta baita arratsaldekoan ere, 17.00etan. Arratsalde horretan Segurako Plaza Zaharreko lagunak elkartekoek lihoaren erakustaldia egin zuten eta horrek jendea animatu zuen, diote antolatzaileek. Larunbatean berriz, jende gutxien hurbildu zen eguna izan zen.

Bisitarien jatorriari dagokionez, gehienak gipuzkoarrak izan dira eta hauen artean asko Urola Garaia eta Goierrikoak; ondoren, bizkaitarrak izan dira nagusi. Aipatzekoa da zubia izan denez, estatutik ohikoa den bezala katalanak etorri direla gehien, eta baita andaluzak ere. Azken hauek Urola Garaian jaio baina Kadizen bizi direnak eta egun hauetan herrira etorritakoak, diote.

Bestetik, II Argazki Digital lehiaketan hamar lagunek eman dute izena, baina jende gehiagok erakutsi du interesa eta oraindik argazkiak azaroaren 11ra bitartean entregatu daitezkeela gogoratzen da. Aldi berean ez da ahaztu behar helduetaz aparte gazteek ere lehiaketa honetan parte hartzeko aukera dutela.

Azkenik, eta Sagardo Aste honi begirada orokor bat botaz, ekitaldiak orokorrean oso ondo egon direla esan dezakegu: antzespenak, bertsolariak, kirikoketa, txalaparta eta abar. Larunbatean eta astelehenean Lazkaoko talogileak izan genituen bertan eta jendeak ere oso gustura jan zituen;

igandean berriz, Nafarroatik etorri zitzaizkigun, Zubietatik. Eta urriaren 14ko hitzaldira nahiz eta jende gutxi hurbildu zen, oso interesgarria izan zen, Iñaki Larrañagak Gipuzkoako Foru Aldundiko Fruitu Garapenerako teknikariak sagardotarako sagarrei buruz hitzegin zuelarik.

Tailerra

Sagardo Asteko ekitaldi guztiak amaituta, larunbatero ospatzen diren ekintzetara bueltatzen dira Igartubeitin. Horrela, gaur arratsaldeko 16:30etan familiei zuzendutako kirikoketa tailerra aurrera eramango da. Tailer didaktiko honek ordu eta erdiko iraupena izango du eta parte hartu nahi duten guztiek aldez aurretik izena ematea eskatzen da.